

Graduondoek ekin diote ikasturte berriari

2013/10/02

Iraileko azken astean hasten dira Huheziko unibertsitate master ofizialak. Baina, horietatik aparte, makina bat graduondo hasten da egun hauetan.

Esaterako, irailaren 30ean ekin zioten eskolei Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak eskaintzen dituen **lau master ofizialek**:

1. Berrikuntza didaktiko metodologikoko proiektuen garapena eta kudeaketa hezkuntza erakundeetan masterra (Berrimet).
2. Hezkuntza testuinguru multikultural eta eleaniztunetan unibertsitate masterra (Ekomu).
3. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta Hizkuntzen Irakaskuntzan irakasle gisa aritzeko gaitzen duen unibertsitate masterra (BHM).
4. Ekonomia soziala eta enpresa kooperatiboa unibertsitate masterra (MCOOP).

Azken hori, master berria da eta Enpresagintza fakultatearekin batera dago antolatuta. Unibertsitate master ofizial guztiak, BHM masterra kenduta, %100 *online* modalitatean eskaintzen dira.

Lanean hasita daude, beraz, unibertsitate master ofizial horietan guztietan izena eman duten **102 ikasle**: Berrimeten 29 ikasle daude (horietatik, 14 ikasle berriak dira eta beste 15 lagun, aldiz, bigarren urtean daudenak); Ekomon, 28 ikasle bildu dira (16 ikasle berri eta 12 bigarren urtekoak); BHMean eta MCOOPen, hurrenez hurren, 34 eta 11 ikasle berri ari dira.

Beste alde batetik, **bi aditu titulu propioko** ikasleek ere ekin diote lanari. Bihar bertan, urriak 3, modu erdi-presentzialean, Aditukom-eko, alegia, Komunikazio erakundeetan aditu tituluko 12 ikasle hasiko dira eskolak jasotzen. Jatorrizko hizkuntzen eta identitate berreskurapenerako aditu tituluko ikasleak, aldiz, aspaldi hasita daude, izan ere, irailetik daude fakultatean. Guztira, aditu horretan, nazioartetik etorritako 15 lagunek hartzen dituzte eskolak, kasu honetan, modu presentzialean.

Graduondoak ez ezik, **hezkuntzako egokitze ikastaroak** (diplomatik gradura pasatzeko ikastaroak) ere abian daude dagoeneko. Guztira, 60 lagunek eman dute izena %100 *online* ematen diren ikastaroetan. Amaitzeko, **hezkuntzan bigarren aipamena** lortzeko ikastaroetan, 35 ikasle eman dute izena.

Ikastaro horiei guztiei buruz informazioa emateko, bideo labur ugari ekoiztu dira. Argia ikusi duen azken ikus-entzunezkoa izan da Enpresa Kooperatiboen Kudeaketan masterrena...





Huheziko graduondoen gaineko informazio eguneratua jasotzeko
Twitterren bidez: **@graduondoak**